

**NAPAR TOKIKO AGINTEAK ETA EUSKARAREN
BORROKA BIGARREN ERREPUBLIKAN BARRENA.
HURBILTASUN BAT.**

JESUS P. CHUECA INTXUSTA.

SARRERA

Zaila suertatzen da “tokiko aginte” eta euskeraren arteko lotura positiboak isladatzea, zeren gure mintairaren aldeko ekintzak, gehienbat, aginte horietatik kanpo edo aginte horien aurka garatuak izan bait dira. Gaur egungo euskeraren aldeko borrokari buruz aritzen garenean kasu gehienetan mugimendu herritar eta euskaltzaleekin topo egiten ba dugu. iraganaren ildora jo ezkerreko gauza bera gertatzen zaigu. XIX garren mendetik hasita Espainiako gerra zibilaren etendura arte euskalduntze eta berreuskalduntzearen saio eta neketan iharduten ziren erakunde eta taldeak nahiz eta batzutan goiko aginteetik zenbait laguntza eskuratu, azken finean beren bultzada eta arnasa bero eta sendoa herriarengandik jaso behar zuten. Honi esker leku batzutan euskeraren gibelamendua ez zen hainbestekoa izan eta euskerarekiko begirunearen hazia ereina izan zen.

Gure egunetan, Nafarroan euskal historiografia eta filologiaren eremuetan euskerari buruzko egindako ikerketak gehienbat bere atzerapenaren prozesuari lotuak ba ditugu ere euskeraren aldeko erakunde edo elkarteetaz arront gutxi ikertu da. Arlo honetan aritzeko asmoz gure herriaren historia osoa egin behar dugulako eta baita ere euskera eta euskal kulturak jasaten duten egoera tamalgarriak iraganaren gertaera eta gatazketatik aunitz ikas dezakelakoan gaudelako ikerlantxo honetan Nafarroako gerra aurreko ikastoletara gure arreta zuzendu dugu.

ELEBITASUNAREN ALDEKO BORROKA ETA AGINTE PUBLIKOAK

1931 garren urtean II. errepublika ailegatu zenean herri zanpatuen gogo eta erreibindikazioen artean hizkuntzen eskubideak aldarrikatzeko eta eska-

tzeko ordua zela sentitu zuten estatu espainoleko nazionalitate guztiek. Euskalherrian 1928 eta 1920 urteetan Eusko Ikaskuntzak antolatutako biltzarretan elebitasunaren aldeko hartutako erabakiak gaurkotu eta martxan ipini nahian erakunde euskaltzake guztiek lau Aldundei eta Ministerio de Instrucción Pública delakoari, arrakasta gutxirekin, bere eskaerak zuzendu zizkieten.

Nafar Aldundiak Eusko Ikaskuntzaren eskaerarekin bat zetorrela erantzun arren, besteak bezala ez zuen bere pean zeuden erakundetan deus bultzatu. Are gutxiago Ministeritzako ordezkariak, zeinek gero sortu izango ziren ikastolei ahalik eta oztopu gehien ezarriko zizkieten. Maisu eta maistren artean jarrera ezberdinak antzematen ziren, esate baterako progresista eta errepublikar sektoretan. Dena den, elebitasunaren oinarri pedagogikoa onartzen ba zen ere gero ez zen sekulan praktikan irakaskuntzara eramaten. 1932 garreneko irailean Iruñako maisu aurrerakoiak lehenbiziko aldiz “Semana Pedagógica” deiturikoa Marcelino Domingoren presentziarekin antolatu zutenean, José Agerre “Gurbindo” euskal idazleak “La Voz de Navarra” egunkarian euskera eta elebitasunarekiko hutsunea zela eta bere arrenkura adierazi zuen. (1) Zokoramendu honen aurrean erakunde eta elkarte euskaltzaleak, beste lurraldeetan bezala, aginte publikoetatik kanpo aritu ziren gerra zibila heldu artio beste hezkuntza sare baten funtsak antolatuz.

“EUSKERAREN ADISKIDEAK” ETA IRUÑAKO EUSKAL ESKOLAK

Primo de Riveraren urte latzetan Iruñan sortu zen euskeraren aldeko erakunde bat, “Euskeraren Adiskideak” alegia. Elkarte hau 1925 garren urtean gure hizkuntzaren inguruan zenbait ekitaldi eta saio aurrera eramateko asmoz. Hau zela eta 1926. 1928. 1930. urteetan zehar euskal bestak antolatzear gain hurren eta helduen literatur lehiaketak bultzatu zituzten. (2)

Erregimen politiko berria heldu zenean bere zuzendaritzan Bernardino Tirapu, Joaquin Ezquieta, Buenaventura Recalde, Remigio Múgica, P. Damaso de Inza, Ignacio Baleztena, Pablo Archanco eta Jenaro Larrache zeuden, azken bi hauek idazkaria eta burua hurrenez hurren zirelarik. 1928 urtean, Donostian eta Tolosan martxan zeuden euskal eskoletaz berririk edukitzeko Eusko Ikaskuntzarekin harremanetan jarri ba ziren ere, helburu hau ez zen helmugara iritsi errepublika garaietara ailegatu arte.

Errepublikako lehenbiziko ikasturtea hasi zelarik, Iruñako euskaltzaleek makina bat gestio burutu ondoren euskal eskola funtzionamenduan jartzea erdietsi zuten. Carlos III. garren etorbideko 21 garren zenbakia zuen etxebi-

(1) Ikus «La Voz de Navarra», 4-VIII-1932.

(2) Ikus Enciclopedia General del País Vasco, Añamendi Argitaletxea, Donostia.

zitzen, azaroaren 12 an, Maite Miren Saizar andereñoaren arduraz 4 tik 12 arteko 41 haurra ikasgaiak hartzen hasi ziren.

Euskal eskola honek “Euskeraren Adiskedeak” elkarteak sortutako patronato baten bidez funtzionatzen zuen, 1933koa honako hauek osatzen zutelarik: Paz de Ziganda, María Viscarret, Pablo Archanco, Fernando Echarri, José Agerre, Angel Irigaray eta B. Arbea. Patronato honek egin zuen arautegiari esker eskola honetako esaugarriak jakin ditzakegu. Bere hasmentan eskolen izpiritua euskaldun eta kristaua jakinerazi zuen: “Dotrina Kristaua irakasten da eta baita ere Euskal Herriaren ezaguera bere ezaugarriak landuz (hizkuntza, historia...)”. Pedagogi mailan, irakaskuntza eraginkorra izan zedin ikasle multzo gorena 50 haurretan kokatzen zen. Pedagogia modernoaren arauak jarraituz haurren ariketak eta ekintzak ahalik eta atseginenak izan behar zituzten memorismo hutsetik alde eginez. Irakasleek batez ere marrazkia, harbela eta mapak erabiliz erakutsi beharko lukete haurrak aspertu gabe gauzen nozioak entzumen eta ikusmenaren bidez ikas zituzten. Beren adinari zegokien irakasgai gehienak euskeraz ikasten ba zituzten ere, arlo batzu erderaz hartzen zituzten ere, arlo batzu erderaz hartzen zituzten, 9 urte bete arte ama-hizkuntza irakaskuntz bidea zelarik.

Mota guztietako gorputz zigorrak debekaturik zeuden. Eguneroko eginbeharra gaztelaniaz eta euskeraz irakurketa eta idazketan oinarritzen zen. Ariketa hauen itzulpenak, hizkuntz batetik bertzerara, egin behar zituzten eta gaiak hautatzerakoan haurren bizitzarako garrantzi eta interesa zutenak hartzea gomendarzen zen.

Hizkuntzen ikasbidez gain Aritmetikako lau arauak, marrazkia eta neskei zegozkien lanak osatzen zuten ihardunaldiaren ordutegia, etxerako lanak galerazturik zeudelarik. Ortzegunetako arratsaldetan eskolatik kanpoko aktibitatei lotzen zitzairen Iruñan barrena zenbait ibilaldi eta ikustaldi antolatuz (Katedrala, Museoa, Diputazioaren etxaldea...) (3)

Eskola finantzatzeko gurasoen hilabeteroko kuotetan sostengatzen ziren (4 tik 6 urte arteko haurrak 5 pta., sei t'erditik hamar urte arte 7'50 pta., 10 urtetik hamabi urte arte 10 pta., bi anai, hiru edo lau izatekotan 15,20 edo 25 pta. hurrenez hurren) baina aurrekontuekin parekatuz sobera exkasak gelditzearen, bai “Euskararen Adiskideak” elkartera bai “E. Ikaskuntzara” behin eta berriro laguntza eske jo behar zuten. Laguntzen artean aipagarrien azken erakundekoa zen, ikastolaren funtzionamendurako aholku eta babes ekonomikoa emateaz gain, behar zituen liburu guztiak Iruñako ikastolari bidaltzen zizkiolako. Hau zela eta “E. Adiskedeak” eta “E. Ikaskuntza”ren arteko eskutitzen bitartez ze motako liburuak erabiltzen niren ezagutu ditzakegu:

(3) Ikus «Reglamento de las Escuelas Vascas de Pamplona», Eusko Ikaskuntzaren Artxiboan, leg. Irakaskuntza.

Irakur-liburuxken artean: “Txomin Ikasle”, “Umearen laguna” “Martin Txilibitu”, “Sabin euskalduna” eta “Ipuin laburrak”. Matematika arloan, Lopez Mendizabalen “Zenbakiztia”. Aita Zabala-Aranaren gramatika eta historiaren liburuak, “Eliztia” eta “Edesti Deuna”. (4) Liburu hauez gain, haurrekin erabiltzeko eskolako arautegian zenbait liburu proposatu ez ezik, irakasleendako ere honako hauek gomendatzen ziren: Barbiarren “Legendes Basques”, Campionen “Navarra en su vida histórica” eta “Narraciones Vas-cas”, Estomesen “Historia del País Vasco”, eta García Ezpeletaren “Geografía de Navarra”.

Datu zehatzik ez dugun arren Ikastola hauditzen zijoalakoan gaude, zeren 1933-1934 ikasturtean ikasgela gehiago behar izateagatik lekuz aldatu behar izan zuten, eskolapioen eskoletara, alegia. Ikastetxe honetan bertan, gerrarekin batera, Iruñako lehenbiziko euskal eskolari akabantza zetorkion. Edifizio berean altxamendua hasi zenean kartzela bat ireki zuten.

LIZARRAKO EUSKAL KATEDRA ETA ESKOLA

1931 garreneko urriaren 17 an Lizarrako 125 hango udaletxeari instantzia bat igorri zioten euskeraren katedra bat irekitzeko bere laguntza eman zezan. (5) Agiri hau sustengatzeko erabili zituzten argudioen artean honako hauek ziren:

“Gure familien abizenak, landa, erreka eta herrien izenak, lurraldean dagoen toponimia orok napparren mintzairaz hitz egiten digute. Hiri honi dagokion lurratik jalgi gabe, Lizarra, Ordoiz, Oncineda, Iturrieta, Merkato-doa, Galdarrain, Zaldu, Ibarra, Belastegi... eta Urederra, hitz guztiek euskeraz hitz egiten digute. Eta dugun udaletxearen zinegotzien abizenek, berak ere, Mujika, Egileta, Agirre, Otxoa, Lukin, Ugarte... haien euskal izaeraren oinarriak errepikatzen dizkigute”.

Ondorio gisa, jadanik bertze herrietan (Irun, Donostia, Bergara, Iruña) martxan zegoen inizatiba, euskal katedrarena hain zuzen ere, Lizarran bertan praktikan paratu nahiean udaletxeari 500 pezetatako laguntza eta ikasgela bat eskatu zioten instantzia sinatzen zutenak.

Zenbait egun beranduago, 1931. ko azaroaren 20 garrenean, “Sindicato de Iniciativas y Turismo” deitutako elkarteak Nafarroako Aldundiari agiri bat bidali zion “Junta de Patronato de la Lengua Vasca” osatu nahi zutela erranez. Elkargo honetan Diputazioak, Lizarrako udaletxe, “Euskeraren Adiskideak”, eta “Sindicato” horrekin batera bortz partaide izendatzen parte hartuko luke. Idatziaren arabera “Erakunde hau bertze herriendako aintzindari izanen litzateke, bertze herri nafarrek, ihardupidea imitatuz, beraiei zegoz-

(4) Eusko Ikaskuntzaren Artxiboan, leg. Irakaskuntza.

(5) Ikus «Memoria Clases de Euskera 1931-1932», Eusko Ikaskuntzaren Artxiboan, leg. Euskera

kien lurraldeetan luza zezaketelako gure hizkuntzarekiko arretak suposatzen duen kulturaren eragin onuragarria”. (6). Patronato hau gauzatu zenean, “La Voz de Navarra” egunkariak erakundearen zuzendaritza jakinerazi zuen: Udaletxea ordezkatzuz eta Patronatoaren burua Fortunato Aguirre, “E. Ikaskuntza”ren izenean José M. Lakarra, “E. Adiskideak” elkartearen aldetik Delfin Irujo eta diruzaina eta idazkariaren lekuetan Alfonso Ugarte eta José Joaquín de Navascues...

Bere gestioak garatu bezain laister Patronato honek lehenbiziko subentzioak bereganatu zituen, 500 pta. Lizarrako udaletxe aldetik eta bertze hainbertze “E. Ikaskuntza”ren aldetik. Azken erakunde honek, subentzioa hornitzeaz gain liburuendako laguntza ematen zuen.

Finantziamentu iturri eta liburuak erdietsi bezain fite 1932 garreneko martxoaren 10 ean zinegotzi arduraduna zen Fortunato Agirrek Azpeitiako iosulaguna Uranga tar Ioseba irakaslea, udaletxeko areto batean, ikasleei aurkeztuz klaseak hasi ziren. Ikasleek ikastaldiaren truke 5 pta. ordaindu behar izan zuten arren kurtsuaren bukaeran matrikula itzuli egin zitzairen. Sindikatoak ikasturtearen amaieran egindako txostenari esker, bertze zenbait ezaugarrietaz jabetzen ahal gera. (7) Hasieran 40 ikasle ba ziren ere, laister kopurua 100 eraino igo zen. Ikasleak bi taldetan banaturik gelditu ziren. Gazteenak hamalau urtetik behera eta helduak hamalautik gorantz. Euskeraren irakaspideari zegokionez aipatu dugun txostenak helburuak eta edukinak helduen eta haurren artean mailakatzen zituen. Gazteenetan nahiz eta ikas taldea sobera haundia eta aldakorra izan lortutako aurrerapenak exkas samarrak ba ziren ere, euskeraz irakurtzen eta idazten jakiteaz gain izan aditzaren forma arruntenak zerabiltzaten.

Dena den baikorrak agertzen ziren Lizarrako eskaltzaleak zeren beraientzat umeen klasearen emaitza garrantzitsuena ez zegoen edukinetan bakarrik kokatuta, baizik eta euskerarekiko begirunean ere bai. Hau izanez gero konten azaltzen ziren kurtsuon barrena euskeraren alde piztuak izan ziren gogo eta nahiak egun batean ere jeitsi ez zirelako”. (8)

Helduen klaseari zegokionez, ikasle zenbakia txikiagoa izan zen, 48. Horietatik batz besteko 35 ko etortzea lortu zelarik. Klaseak hasi zirenean luzaidetar idazle zen E. Zubiri “Manezaundi”k Lizarrako eskualtzaleak txalotzen zituen:

“Gerthakari dohatsua eskualdunen eta Eskualherrianrentzat Lizarran erabaki duten yaunek Eskualtzale Batasun bat eraikitzea beren arbasoen mintzai ederra ikhasteko, altchatzeko eta hedatzeko eskualde hartan” (9).

Idatzi berean napar euskalkiak ikas zitzairen gomendatzen zien, erranez:

(6) Ibidem.

(7) Ikus “Memoria Clases de Euskera 1931-1932”, Eusko Ikaskuntzaren Artxiboan, leg. Euskera.

(8)

(9) Ikus «La Voz de Navarra» 13-II-1932

“Bainan ni ausartzen niz erraiterat eskualtzale suhar horiek ikas dezaten Naparroako mintzoa. Ez beste eskualdeko batetakoa, anitz ikasle berri-kegiten dutena.”

Manezaundiren aholkuen aurka Lizarrako eskolan azalpen eta ariketetan ihardutzeko Arrigaray-Ataunek gipuzkeraz egindako gramatika oinarriztat hartu izan zen. Liburu honetan 47 ikasgaietan zehar gramatikako arau guztiak aztertzen ziren eta itzulgaiak eta irakurgaien bidez gipuzkoar idazleen bilduma (Iraizoz, Kardaberaz, Arr-ese...) azaltzen zen. (10)

Lehen aipatu dugun txostenak zioenez helduen adinagatik seriotasun gehiagorekin eramana izan zen talde honen klasea eta honen ondorioz lortu-tako emaitzak garrantzi handikoak izan ziren.

Dena den euskal katedrarekin bi urte aritu ondoren, Lizarrakoek bertze urrats bat eman zuten. Umeendako euskal eskola bat paratzea, hain zuzen ere. “Patronato de la Lengua Vasca”ko idazkariak “E. Ikaskuntza”ri bidali zion idatzi batean zioenez leku erdaldunetan euskera berpizteko haurtxaroarekin hastea bidezkoa eta nahitanahiezkoa zen. Hau izan ere, “E. Adiskideak” erakundearen bitartez Leitzako Azpiroz tar Petra andereñoarekin harremanetan jarri zirelarik Lizarratarrek 1933ko urrian San Juango plazako etxebizitza txiki batean euskal eskolari hasiera eman zioten.

Petra Azpiroz’ek 17 urte eta karrera bukatu berria zuen arren lanari gogo handiarekin ekin zion eta hasieran gaizki ikusita zegoen ikastolak pixkanaka pixkanaka entxute on lortu zuen. Lehenbiziko ikasturtean 30 ikasle, neska eta mutikoak, ba ziren ere, gudarekin batera ikastola itxi zutenean ikasle multzoa 42ra ailegatzen zen. Denak talde batean zeuden bilduak neskatoak zein mutikoak, adina guztietakoak.

Liburuei begiratu, Eusko Ikaskuntzak hornitzen zituztenak erabiltzen zituzten. Baina Petra Azpiroz’ek aipatu zigunez ba ziren haur oso txikiak, “irakurtzen ez zekitenak” eta nahiz eta gauza zaila izan abesti eta jokuen bidez euskeraz elkarren artean hitz egin zezaten lortu zuen. “Hitz egiten nun euskeraz abestiak erakusten eta umetxoak oso jarriak ziren, pozik zeuden eta gauzak esateko berak euskeraz egiten zidaten “utziko didazu pix egitera joaten” “kalera joanen naiz” eta holako gauzak” (11). Ikastola, Lizarrako plaza kokaturik zegoenez gero hortxe bertan zeukan bere jolaslekua. Andereñoak oroitarazten digu: “Jende guzia harritzen zen baina ez zuen oso kontra egiten jendek ez, bestela ba ziren oso “zipitek”, jende gaizto xamarra eta batzutan umeak etortzen ziren niregana esanez “Andereño, esan digu guk maketoak despreziatzen ditugula” eta horrelako tontekeriak, baina herriak gehienbat onartzen zuen ikastola”.

(10) Ikus «La Voz de Navarra», 3-III-1932

(11) Petra Azpirozi jasotako testimonioa.

Ikastolara joaten ziren gehienak, salbuespen batzuk kenduz, abertzale aldekoak ziren, garai hartako abertzaleak. “PNV”k bultzatu zuen ikastola. Ordun ez zen besterik. Han lan gehiena egin zuena, Irujo zen, Agirre baita ere, Nabaskues...“. Baina hirugarren ikasturteko oporretan gerra hasi zenean euskal kulturaren seinale guztiak ezabatzeke bai Lizarrako Ikastolak bai horko nazionalista eta euskaltzaleek sekulako errepresioa jasan behar zuten aginte berrien aldetik. Zentzu honetan biziki adierazkorra da Lizarrako Komandanteak egindako deia:

“D. Ricardo Sanz Iturria, comandante militar de esta Plaza. HAGO SABER

Salvo algunas honrosísimas excepciones en que elementos nacionalistas de Navarra se han alistado voluntariamente en general el partido nacionalista ha observado indiferencia ante los gravísimos momentos por que atraviesa España; y son demasiado graves estos momentos para guardar cierta clase de posturas.

Estella estaba minado por el separatismo, fomentado e importado por ciertos hijos de la misma que todos conocen, por lo que no hace falta mencionarlos. Por ellos se ha vertido en Guipuzcoa y en otras partes mucha sangre española, de la cual no poca estellesa.

Por lo cual hago saber lo siguiente:

En el plazo de cuarenta y ocho horas, a partir de la publicación de este bando, todos los elementos nacionalistas entregarán en la Comandancia Militar todos los objetos o prendas de carácter separatista, los libros, periódicos, mapas y retratos, de aquel que se llamo Sabino Arana, así como bustos de éste y otros cabecillas separatistas, Asimismo se entregaran por quien los posea los libros y objetos de toda índole de la finada escuela vasca; la documentación, objetos, insignias y fondo de las sociedades nacionalistas y, en una palabra, todo lo perteneciente a esas sociedades o con ellas relacionadas...

En ciertas regiones de las provincias vascongadas y en nuestra querida Navarra se usan el chistu y los correspondientes instrumentos para sus bailes. En las Vascongadas muy bien que sigan con su patriarcales costumbres; en Estella eso es planta exótica desconocida e importada por los que todos sabemos. Se acabó el “gora Euzkadi”, estamos en tiempos de Viva España, por consiguiente, quien los posea entregará todos esos instrumentos en el mismo plazo.

Asimismo se prohíbe la palabra “Agur”, importada por los separatistas en lugar del “Adios” genuinamente español. Con lo dicho y para quien quiera entender queda de sobre explicado el motivo de la publicación de este bando y lo que con ello se persigue.

Pasadas las 48 horas de plazo y si esta Autoridad sospechara que las cosas que se pide se entregue, no han sido entregadas, por algu-

na persona o entidad, se harán registros domiciliarios, aplicando a los contraventores la pena que haya lugar. Vuva Navarra! ¡Viva España! Estella, 25 de setiembre de 1936). (12)

ELIZONDOKO EUSKAL ESKOLA

Baztango eskola hango abertzaleek bultzatuta errepublikako azken ikasturtean irekia izan zen. Jaso ditugun lekukotasun guztien arabera eragile eta laguntzaile garrantzitsuenetariko bat Ignacio Iturria zen. Honek “ordaintzen zituen denak, andereñoaren soldata, liburuak, alkiak, maiak, antolamendu guziak, dena denak herriari edo batzokiari dena kosta gabe”. “Iturria zen euskaltzale izugarri beti euskeraz mintzatzen zen, euskaltzale sutsua. (13)

Era berean aipatzekoak dira Lekarozko komentuko zenbat fraide, Aita Miguel de Alzo batik bat. Honek Eusko Ikaskuntzaren “Comisión de Enseñanza Primaria” delakoaren partaide izateagatik erakunde horren laguntzak erreztu ez ezik (14) andereñoari aholku eta behar zituen laguntza guztiak ematen zizkion ere.

Ikasturtea martxan ipintzeko Donostian magisteritza bukatu berria zeukan andereño goizuetar Pilare Alba Loiarteri deitu zioten. Bera Elizonderat joan bezain laister urriaren lehenbiziko egunetan kurtsoa 30 umekin hasi zen. Ikastetxea Antxitoneko trinketearen ondean, gaurkegun Braulio Irarte karrikaren 22 garren zenbakiko etxean atondu zuten. Pilare Alba, 21 urte zituelarik, ikastola ireki zenean ongi oroitzen da: “Nahiz eta ilun xamarra izan, mahaiak eta alkiak argiak ipiniz gauza polita sortu zen. Handia, handia ez zen, baina hasteko ongi.” “Eskubidea eman zidaten egiteko neorrek, jartzeko nahi nun bezala eta ordun jarri nien uniforme bezala, batatxo urdin bat, denak berdintsuak egoteko. Liburu kontun, nahi nun guztia, materiala eta dena, dana. Ez dut pentsatzen ordaintzen zutela asko. Hori dana Ignacio Iturria Jaunak egiten zuela, nire ustez hala da. (15)

Hala eta guztiz ere, ikasturteari hasmenta eman bezain fite jaiotzen ari zen ikastola berriari arazo larriak ailegatu zitzaizkion. Mariano Izetaren testigantza zaren arabera: “Etsaiak ez daude lo, eta etsai maltzur horiek ibili ziren azpilanear, azpijokuan hasi ziren gure ikastola bota beharrez, nola ibili ziren gure ikastola bota beharrez, eta ez zagola behar zen baimena, ez zagola ongi legalizatuta eta hainbeste gauz eta ondarrean etxi zakuten” Urriaren bukaeran lurraldeko inspektorea zen Angeles Barriolaren txostena zela medio Dirección General de Enseñanza delakoak. Elizondo ikastolari bere funtzionamendurako beharrezkoa zen baimena uko egin zion. Mariano Izetak kontatu

(12) Torreal dai Joan Mari: «Euskeraren zapalkuntza 1936-1939» in JAKIN, 24,1982, or. 64.

(13) Mariano Izetari jasotako testimonioa.

(14) Pilare Albari jasotako testimonioa.

(15) Ibidem.

zigunez “Haur guziek handik atera, eta berriz sakabanatu ziren, hedatu ziren alde guzietara, barreiatu ziren eta hola gelditu zen”.

Egoera honek 1936ko Otsaileko hauteskundeak burutu arte iraundu zuen. Frente Popularraren garaipenarekin ikastolako aintzindariak berriz baimena eskatu eta berehala ireki zuten, ikasturte honetako gelditzen ziren hilabeteak problemarik gabe igaro zirelarik. Pilare Alba andereñoaren oroitzapenen arabera: “Giro nahiko ona, eragozpenik ez nuen izandu, lagunak genituen danak, elkarrekin joaten ginen goizero Lekarotzera, eta eskola aldetik erreztasun guztiak eduki nituen. Pedagogia aldetikan, ikasleak oso txikiak izaten zirelako liburuak baino gehiago irudiak erabiltzen nituen eta horiek egin beharko nituen. Nire gusto handiena neretzako izan zan eragozpenik ez eukitzea.”

Bertze ikastolei bezala, Elizondokoari Espainiako gerrarekin behin betiko itxiera heldu zitzaion. M. Izetaren hitzetan: “zoritzarrez ez dire gauzak guk nahi dugun bezala eta orduen guda zibilarekin hasi zen mugimendua, guardia zibil guziek pasa ziren hemendik denak formatuek eta paper batetik irakurtzen zuten dei bat... hasi ziren etortzen kamionak eta kamionak eta hainbertze requete eta falange eta Arizkunenean paratu zuten bere Koartela. Berehala, bi egunen buruan edo hola, requeteak joan ziren ikastolara eta lenbiziko ereki zuten, sartu ziren barnera eta atera zituzten hango liburu guziek eta erre zituzten denak eta hango alkiek, maiak, atera zituzten eta oroitzen naiz nola karroetan bertze eskoletara eraman zuten. Hustu zuten dena, ikastola guzie hustu zuten eta han ezarri zuten ate buruen letra oriekin “Cuartel de Pelayos”. Eta han organizatu zuten requete horiek haurren artean, “pelayos” eta arma batzu zurezkoak egin zituzten eta egiten zuten instrukziona. Nola sunt-situ zen gure lenbiziko ikastola.”

Bestalde, ikastolaren andereñoa, Pilare Alba oporretan egotearren Elizondotik at zebilen eta Gipuzkoatik abiatuz Bizkaiara joan zen hango Mundakako ikastolan 1936-1937 ikasturtean arituz. Azken lurralde hau Francoren esku gelditu zenean atzerrira joaten ziren umeekin Iparralderat alde egin zuen Donibane Garazin zeuden haur errefuxiatuen artean klaseak emateko. Urte batzu beranduago erbestetik itzuli zenetik berriro Bizkaiko ikastoletan, orain dela denbora gutxi arte lanean ihardun du.

Berak bezala, euskal eskolaren laguntzaile baztandar batzuk mugaz bestaldera ihes egin behar izan zuten. Haien artean, lehen aipatu dugun Ignacio Iturria eta Lekarozko fraide euskaltzale zerrenda luze bat (Damaso Intza, Jorge de Riezu, Miguel de Alzo, Hilario Olazarán.e.a.).

Ikastolan “Cuartel de Pelayo? paratzen zuten bitartean, Lekarozko ikastetxean odolako ospitale bat ezarri, “Por Dios, por la patria y el rey”koek ze motako begirunea euskera eta euskal kulturari eman behar zioten garbi eta argi erakusten zuten.

Zorionez, harnarkada batzuen buruan bai Lizarran, bai Elizondon, bai Iruñan ere bertze hainbertze lekutan ikastoletako geletan euskal umeeek euskalduntzeari berrito ekin zioten. Baina hau bertze istorioa da...

RESUMEN DE LA COMUNICACION

“Poderes locales y lucha por el Euskera en Navarra durante la II República. Una aproximación.”

Los trabajos realizados sobre el euskera en Navarra, han venido, casi siempre, unidos a la historia de su inexorable retroceso. Los análisis diacrónicos así como los estudios del fenómeno cultural euskaldun, si bien han puesto en evidencia el real proceso de vaciamiento y desaparición de áreas vascófonas a nuestro parecer, han prestado poca atención a toda la serie de movimientos y organizaciones vasquistas que desde el siglo XIX han funcionado como un auténtico contrapoder cultural que si bien no ha podido frenar los ataques a nuestra lengua, puso las bases y la conciencia sobre las que se asienta el potente movimiento euskaltzale de hoy día. La comunicación presente, mediante testimonios orales y documentos generados, fundamentalmente, por Eusko Ikaskuntza y Euskeraren Adiskideak estudia el surgimiento, desarrollo y trágica desaparición de las Escuelas Vascas que en tres poblaciones navarras (Iruña, Elizondo y Lizarra) constituyeron un contrapoder cultural y llegaron a hacer realidad el ideal de una enseñanza del y en euskera en el periodo republicano de 1931-1936.